

Sariaaundi, 'Usurbilgo Igartubeiti'

Usurbil izan zen lehen **Sagardo Eguna** antolatu zuena, 1981ean. Etzi ospatuko da aurtengoa, eta biharko bisita antolatu dute Sariaaundi tolare-baserriara

'Urtebete' izeneko sagarra ezagutu dut, bere iraupenagatik oso estimatua

San Telmoko **'Harriak'** erakusketa magikoa da. Txuri-beltzeko mundu indartsu batera eramaten zaitu



LAUBIDE

FELIX
IBARGUTXI

gande honetan, **Sagardo Eguna** Usurbilen. Sagardo Egunean, bera zaharrena, 1981ean jaio baitzen. Dekanotza aitortu behar zaio herri honi. Sagardo kontuetan harro egon daiteke Usurbil: sagardotegi profesionalak gain (Saizar, Urdalra, Aginaga, Iruin, Araeta, Arratzain, Aialdena eta, tarteka, Ilunbe) hango berrogei etxetan egiten da sagardoa. Urtero, Santo Tomas aurreko iganean, etxe horien arteko txapelketa egiten da gainera. Iazko abenduan **Joseba Zuloagarena** gertatu zen txapelketa.

Gainera, badago **Usurbilgo Sagastiak** izeneko enpresa, muztioa eta sagar dultzea egiten dituen.

Sagardo Egunaren bezperan -bihar- bisita gidatua egingo da **Sariaaundi** baserriara. XVI. mendeko tolare-baserria da, iaz zaharberitutakoa. Azalpenak ematen, bi lagun: zaharberritze hori egin duen **Luis Alberdi** arkitektoa eta natura-kontuetan aditua den **Jakoba Errekondo**. Usurbil eta Orioren arteko muga-mugan dago baserri hori tolare izan zedin eraiki zuten. Ordutik gaurko garaia arte iraun dute.

Orain fatxada ikusgarria du, zurezkoa. «Etxeak tapatuta zituen ohol horiek denak. Orain, zaharberritzea egiterakoan, arkitektoak pentsatu du garai hartako fatxada holakoa izango zela», esan dit **Jose Mari Zaldia**, Sariaaundiko nagusietako batek. «Aspaldi etorri zen **Josu Tellabide**, baserri buruz lan zabal bat egiten ari zen gizona, eta hark segituan esan zigun: zuen etxe hau Igartubeitiren ahizpa da».

Historia aberatsa du baserriak. Erriberako lur emankorren ondoan eraiki zen XVI. mendean. Bederatzi haberen gainean altxatzen da eta eraiki zen garaiko egitura ia osoa mantentzen du.

Sekulako iraupeneko sagarra

Beste sagar-kontu bat. Duela egun batzuk, Astigarraga aldean nengola, Ilarraren Egunari buruzko informazioa biltzeko, **Miel Joxe Asar** bek eman zidan berria: «Roxario-enean **'Urtebete'** esaten dioten sagarra jan



Lehen eta orain. Usurbilgo Sariaaundi baserria gaur egun eta, argazki txikian, baserri bera 1999an, zaharberritzen hasi aurretik. :: MICHELENA/JOSU TELLABIDE



Orain ere jateko modukoa. 'Urtebete' sagarra. :: UNANUE

dut, **Txaro Zapalinek** emanda. Izugarriko iraupeneko sagar-mota da». Hortik izena, bistan da.

Sagar-mota guztiek beren historia edukitzen dute, eta honena ere ez da makala. **Josu Osak**, han eta hemen txertaketan ibiltzen den gizonak txikitatik ezagutzen zuten. «Nire jaiotetxean, Murtikun, bazeen, baina guk Urtebi Txiki esaten genion -esan dit Osak-. Ez dauka zer ikusirik orain izen horren pean finkatu den beste sagar-mota horrekin. Gure baserria erre egin zen eta kalera jaitsi ginen. Hango sagastia alperrik galdu zen. Baina herriko komentu batean, moja agustindarren komentuan, bazegoen sagar-mota hau, eta handik menuak hartu eta zabaltzen hasi nintzen. Astigarragako Sagardotxean ere badute». Noski, beranduko sagarra da, azaro aldera jasotzen da arbolatik.

Harri baldarren historia

San Telmo Museoko **'Harriak'** erakusketan izan berri

naiz. Alde batetik, ni; bestetik, gaixo psikiko batzuk, beren begiraleekin paseo-ateratakoak. Haiek pantailako irudiei egiten zieten kaso. Nik «harri baldarrak» esan ohi zaien horiei. Eta baita 'Harria' liburuari ere. Benetako entziklopedia da liburu hori, **Patxi Jauregi-Miguel Iriarte** bikotearen testuen eta **Joseba Urretabizkairen** txuri-beltzeko argazkien gainean eraikia.

Erakusketan badago aukera oso jende gutxi ukitutako gauza bat ukitzeko: harnijasotzailearen harria. Eta tartean badira «harri baldar» batzuk ere, bakoitzak bere historia propioa daukana, denak zailak, denak buruko min galantak eragindakoak. Erakusketan hauek daude: **Bolo Harria** (Arrasate, 215 kilo), **Bedaio Harria** (226,5), **Pipa Harria** (191), **Igeldoko Harria** (123) eta **Albizuri Haundi Harria** (Amezketak, 165,5).

Harri hauetan, Igeldoko Harria da seguru asko gehien mugitzen dena. Itsas ertzetik atera zuten 'Luxarbe' eta beste batzuek, 1993an, eta harezkero, urtero, Donostiako Aste Na-

gusian, lehia antolatzen du Udalak, eta azken bederatzirteotan Jose Ramon Iruretagoiena, **Izeta II.a**, nagusitu izan da. Ezin izan du, hala ere, **Goenatxo II.a**ren marka hautsi. 123 kiloko harria da hau.

Historia zabalena eta epikoena, berriz, Amezketako Albizuri Haundiak izango du. 1887koa da eta hantxe egon zen, inork ezin zuela altxa, harik eta, 1947an, **Santos Iriarte 'Errekar-tetxo'**-k bizkarrean berdin du zuen arte, arauzko hamar minutuak agortzeko zorian zeudela. Gaur egun 165,6 kilo pisatzen du eta 2010ean egin zen haren inguruko azken jaialdia. Orduan **Joseba Ostolaza** gaztea izan zen trebeena.

Pipa Harria, berriz, itxura zelebrekoa da, alde batean zabalagoa baita. Harlandua da eta Errekartetxok egina-razi zuen 40ko hamarkadan. Bolo Harria, aldiz, oso da astuna, eta hiru lagunek altxa dute: **Gibitegik**, **Iñaki Perurenak** eta **Goenatxo II.ak**.

Bada beste harri bat, Bedaio Harria, 226,5 kilokoa, hau ere berezia, baina ez baldarra. Bestela altxa izan da, bizkarrez, eta San Telmoko areto horretan badira argazki batzuk altxatzeko modu hori erakusten dutenak. **Ramon Jauregi** bedaiorak jaso zuen lehen-biziko aldiz, eta hortik harriaren izena.

Ramon Jauregi hori, berriz, lehen aipatu duen Miguel Jakintzu horren aita zen. Amezketako aldekoak ziren harri bizkarrez jasotzen saiatzen zirenak. fibargutxi@diariovasco.com